IKER GAZTE 2021
NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

Adineko pertsonek COVID-19 pandemiari aurre egiteko erabiltzen dituzten irudikapen sozial eta emozionalak aztertzen

Amaia Eiguren Munitis*, Nahia Idoiaga Mondragon*; Naiara Berasategi Sancho*; Maitane Picaza Gorrotxategi*

*Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco

Testuingurua

Espainia COVID-19ren Europako epizentroetako bat bihurtu da, eta pandemia horrek bereziki adinekoei eragin die

COVID-19 pandemia bereziki bortitza izan da adinekoentzat, mundu mailan osasun krisi honetako talde ahulenetakoa bilakatuz. Ondorio epidemiologikoetatik harago, egoera horrek adinekoengan ondorio psikologikoak, harremanetakoak eta sozialak ere izan ditu

Helburua

Helburu nagusia COVID-19ren agerraldiak adineko pertsonengan duen eragina aztertzea da, ikuspegi psikosozial batetik; zehazki, pandemiaren lehen fase horri emozionalki nola irudikatzen eta aurre egiten dioten aztertu nahi da

Helburu orokor horretatik harago, ikerketa-galdera gisa, alarma- eta blokeo-egoeraren deklarazioaren ondorioz irudikapen horiek aldatu ote ziren aztertu nahi da

Metodoa

- Lagina: 115 pertsona (% 66 emakumeak eta % 34 gizonak); Batez besteko adina 67,48 urte (SD = 4,70)
- Metodoa: COVID-19ri buruz dituzten gizarte-irudikapenak aztertzeko, elkarte askerako laukien bidezko metodoa erabili da [Grid Elaboration Method]
- Prozedura: online, GoogleForms. Galdetegiak 2020ko martxoaren 11tik 18ra bitartean bete ziren; parte-hartzaileen % 49k bete zuten itxialdi agindua eman aurretik, eta gainerako % 51k bete zuten itxiera-aldia hasi ondoren.
- Datuen Analisia: Testu-corpusa aztertzeko, Reinert (1983,190) metodoa erabili da Iramuteq softwarra erabiliz analisi lexikorako

Emaitzak



5. klasea: (17.58%) **Gobernuaren eta komunikabideen erantzuna**

HITZAK	X^2
Gobernua	24.8
Komunikabideak	14.54
Anabasa	14.54
Sortu	14.22
Berriro	12.21
Kezka	9.94
Gehiegikeria	9.52
Hurbil	9.52
Eskola	8.19
Interesa	8.19
Birusa	6.57
Berriak	5.16
Prebentzioa	5.16
Etorkizuna	5.16

2. klasea: (19.78%) **Adinekoak arriskuko biztanleria gisa**

HITZAK	X^2
Kutsakorra	22.11
Arriskua	18.31
Handia	16.97
Gaixorik	16.35
Arriskutsua	15.17
Kutsatzea	12.58
Saihestu	12.09
Oso	11.52
Gripea	11.17
Gaixotasuna	8.9
Berrogeialdia	8.18
Bizitza	8.04
Heriotza	8.04
Adinekoak	7.03
Pertsona	6.67

*Itxialdia baino lehen $p < .009$ *Itxialdiaren ondoren $p < .002$

4. klasea: (21.98%) **Erantzukizuna: zientzialarien eta medikuen gidalerroei jarraituz**

HITZAK	X^2
Sen ona	18.78
Kokapena	17.97
Erantzukizuna	14.85
Gidalerroak	13.84
Zientifikoa	11.01
Tlasaitasuna	11.01
Osasuna	11.01
Beharrezkoa	10.81
Medikuak	10.81
Bilakaera	10.39
Histeria	10.39
Arduraduna	10.3
Segurtasuna	7.48

3. klasea: (19.78%) **Nire familiari eragiten dion krisi globala**

HITZAK	X^2
Mundua	16.97
Mundu osoan	13.84
Gizartea	13.84
Krisia	12.75
Ekonomia	10.09
Bilobak	10.09
Familia	10.09
Denbora	9.53
Pandemia	8.9
Isolamendua	8.06
Inoiz ez	7.96
Osasuna	7.96
Eragin	6.47
Zaintza	5.39

* Itxialdia baino lehen $p < .05$ * Itxialdiaren ondoren $p < .05$

1. klasea: (20.88%) **Erantzun emozionala**

HITZAK	X^2
Segurtasun eza	21.73
Beldurra	15.85
Ezjakintasuna	15.85
Bakardadea	15.17
Egunak	13.66
Garrantzitsua	9.2
Zalantzak	9.2
Ziurgabetasuna	8.25
Segurua	7.42
Urduritasuna	7.42
Hil	7.42
Izua	7.27
Antsietatea	7.23
Triste	7.23



Taldekatze hierarkikoaren dendrograma: Partaideek COVID-19ri buruz zituzten ideia nagusiak identifikatu dira, asoziazio askeko prozeduraren bidez lortutakoak. Gai edo ideia bakoitza hitz eta testu-segmentu tipikoen multzoak irudikatzen du, eta klasea deitzen zaio

Similitude lexikal analisia: Analisi horretan oinarrituta, argiago ikus daiteke adinduek *beldurra* sentitzen dutela COVID-19ak sorturiko egoeraren aurrean eta, ondorioz, *kezka, arriskua, ezjakintasuna* eta *zaurgarritasuna* bezalako hitzak azaleratzen dira

Ondorioak eta etorkizuneko bideak

Ikerketa lan honek baieztatu du COVID-19ren krisia ulertzeko irudikapen sozialak prestatu zirenean erantzun emozionalak arriskuaren ulermena baldintzatu zuela.

Pandemiari emandako erantzun oso batean, garrantzitsua da ainguratze emozionala eta objektibazioa kontuan hartzea, horrek eragina izango baitu pandemiari emandako erantzun politiko eta sozialaren tamainaren, formaren eta denboraren banaketan

Eiguren, A., Idoiaga, N., Berasategi, N. eta Picaza, M. (2021). Exploring the Social and Emotional Representations Used by the Elderly to Deal With the COVID-19 Pandemic. *Frontiers in Psychology*, 11, 4020. https://doi.org/10.3389/fpsyg.2020.586560

Kontaktua:

amaia.eiguren@ehu.eus
nahia.idoiaga@ehu.eus
naiara.berasategi@ehu.eus
maitane.picaza@ehu.eus

KideON
https://kideon.eus/es/